

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

**LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA**

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernua “Betizu” arraza autoktonoaren haragia merkaturatzeko proiektua garatzen ari da

Garapen Ekonomikoko Departamentuak finantzatu eta INTIAk gauzaturiko proiektua da

Ostirala, 2018.eko martxoak 23

Nafarroako Gobernua “Betizu” behi-arraza autoktonoaren haragiaz ekoiztutako produktu lehiakorra lortzeko I+G proiektua garatzen ari da, Garapen Ekonomikoko Departamentuak finantzatuta eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari atxikitako INTIA enpresa publikoak garatuta.



Betizuaren haragiaren dastaketa bateko partaideak.

“Betizuaren Haragia” deritzon produktua karakterizatzea da proiektuaren helburu nagusia, Nafarroan galtzeko zorian dagoen behi-arraza autoktono honen ustiategiaren errentagarritasuna hobetu eta mantentzen laguntzeko, elikagaitzat erabiltzen dituzten larreei atxikitako kalitate bereiziko haragi-ekoizpenerako baliatuz.

Proiektu honen barnean, INTIAk dastaketa bat antolatu berri du, haragi autoktono honen kalitatea eta izaera bereizia aztertzeko. Dastaketan parte hartu zuten 22 pertsonen zenbait animalia-motaren laginak probatu zituzten (gizendutako abelburuen 3 lagin eta aratxeen kategoriako bi lagin), kolorea, usaina, zaporea, gogortasuna eta urtsutasuna bezalako parametroei buruzko balorazioa eginez, horretarako prestatuak zituzten dastaketa-fitxen bitartez.

Dastaketan, Betizu arrazako behien hazleen elkarteko adituek, Administrazioako teknikariek eta harakintzako profesionalek parte hartu zuten. Ondoren, dastaketa-bazkaria egin zen 50 pertsonaren parte-hartzeaz haragi honekin prestatutako platerak probatzeko eta, aldi berean, proiektua ezagutzera eman, orain arte emandako aurrerapausoak azaldu eta proiektuaren helburuak sektorearekin partekatzeko asmoz.

600 abelburu inguru Nafarroan

Betizua Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Akitaniako (Frantzia) zenbait eskualdetan zehar sakabanatuta dagoen arraza autoktonoa da, 2003az geroztik Nafarroan galtzeko zorian dauden espezieen artean sailkatuta dagoena. Arraza hau haragia ekoizteko hazten da nagusiki, era estentsiboan hazi, eta Pirinioen aurrealdeko larre gogorrez elikatzeke gauza denez gero, mendiak egoera onean mantentzeko laguntzen du.



Betizu arrazako abelburuak, larrean.

Nafarroako Betizu Arrazako Behien Hazleen Elkarteak (ASBENA) INTIAren laguntzaz eta partaidetzaz osatutako erregistroaren arabera, Nafarroan betizua hazteko 17 ustiategi daude eta arraza honetako 623 abelburu, guztira.

Duela 15 urte, Nafarroako Gobernuak betizu-populazio bat mantentzeari ekin zion Urraulgoitin duen Sastoia finkan, eta betizu-talde hori arraza horretako behi-talde bat mantentzeko ardura duen INTIA erakundearen eskura utzi zen geroztik. Ekoizpen ekologikoan izen-emanda dagoen finka horrek 83 hektareako azalera du, eta bertan, behi-mota honen manei estentsiboa egiten da, bai arraza honen ezaugarriei eta tamainari erreparatuta, baita finkaren egiturak berak abelburuak bildu eta maneiatzeko eskaintzen dituen zailtasunen eraginez ere.

2016an, INTIAk hasiera eman zion hiru urteko iraupena duen I+G proiektu honi, Garapen Ekonomikoko Departamentuaren finantzaketaz, merkaturatzeko moduko produktu lehiakorra garatzeko asmoz: harakia deritzon Betizu arrazako ar zikiratua, 48 hilabetetik beherako adinean sakrifikatutakoa. Horretarako, 2016an eta 2017an, INTIAk galtzeko zorian dagoen arraza honetako 24 hilabetetik gorako 40 behiez osatutako ustiapena mantendu du finka honetan.

Proiektu hau, INTIAren ildo esperimentalen barnean galtzeko zorian dauden arraza autoktonoak mantendu, hobetu eta hedatzea xede duen ildoari atxikita gauzatzen ari da, eta haragi mota honen kalitatea eta izaera berezia aztertzeko, nahitaezkoa du dastaketa organoleptikoak egitea. Proiektuak dirauen bitartean, bildutako laginekin haragi freskoaren kontsumitzaileei zuzendutako dastaketak antolatuko dira, haragi honen onargarritasun orokorra merkaturatutako haragiarekin alderatuta neurtzeko, eta honen laguntzaz, 24-30 hilabeteko harakiaaren produktua tipifikatu ahalko da.

Betizu, galtzeko zorian dagoen arraza autoktonoa

'Europako azken basa-behia' izaki, betizua dugu Europa osoko behi-arrazarik bereizgarrienetakoa, genetikagatik nahiz basatutako izaeragatik. Animalien baliabide genetikoak balio goreneko ondarea dira gizateria osoarentzat, eta aniztasun genetikoaren galerak abeltzaintzaren ekoizpena eta produktibitatea mantendu eta hobetzeko eta nekazaritza iraunkorrari eusteko aukerak gutxitzen ditu, ingurumen-baldintza berriei aurre egiteko gaitasuna ere murriztuz.

Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioak "Arraza Autoktonoa" logotipoa erabiltzeko baimena eman dio Betizu-Hazleen Federazioari (FEBE), arraza honen Liburu Genealogikoa kudeatzeko aitopena duen erakundea den aldetik, Nafarroako Gobernuak baldintza-plegua onartu ondoren. Federazioaren datuen arabera, arrazak 922 abere inskribatuak ditu gaur egun Liburu Genealogikoan, 40 ustiategitan zehar banaturik.

Historikoki, betizu arrazako abereak laborantza-lanetarako erabiltzen ziren tarteka, eta noizean behin, abeltzainek haragia ekoizteko ere baliatzen zituzten. Irauteko aukerarik ere izanen ez lukete beste arraza batzuen aldean, larretan arras ongi portatzen den arraza denez gero eta berairazko ekoizpen-sistema dutenez gero, kalitate bereiziko haragia ekoizteko moduko arraza dela uste da.

Azken urteotan, arraza hau berreskutatu eta abelburu-kopurua areagotzearen aldeko interesa

hazten ari da. Baina ekoizteko aukera garbirik ezean, betizuaren haragia ezin da lehiatu gaur egun beste arraza batzuetako haragiekin.